

STREAMVERSE

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**

Guk eskaintzen dugun zerbitzua edozein pertsonari zuzenduta dago. Hala eta guztiz ere, gazteak telesailak eta filmak eskaintzen dituzten plataformeen kontsumitzaile sutsuenak direnez, plataforma hau batez ere haiei begira prestatuakoa da, hauek baitira streaming zerbitzu gehienak kontsumitzen dituztenak eta zailtasun ekonomiko handienak izaten dituztenak. Bestalde, plataforma hau ere adineko pertsonentzat ere erabilgarria izan daiteke, izan ere, gero eta adineko gehiago ari dira streaming munduan murgiltzen. Hori dela eta gure streaming zerbitzua erabat dibertsoa da, hau da, dibertsifikazioaren alde egiten dugu, edozein pertsona edozein gizarte-talde edota ahalmen ekonomikoaren arabera, plataforma honetan interesatuta egon daiteke.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Gure bezeroa askotarikoa eta ugaria da, hala ere, kontuan izan behar da hauek filmzaleak izan behar direla gure zerbitzua kontratatzeko. Gainera, azkenaldian gaztaroak gero eta gehiago jotzen dute streaming plataformetara telebista edo zinema bezalako entretenimendu iturriak baino. Horrez gain, lehen aipatu bezala, gure zerbitzua ahalmen ekonomiko handia ez duten pertsonari ere bideratuta dago. Horrenbestez, gure zerbitzua errentagarria da edozein pertsonarentzako, are gehiago, kontsumitzaileak arduradun izan daiteke honek hilabete bukaeran ordainduko duen faktiruraren inguruan.

Esandakoak esanda, gure bezeria askotarikoa da, gainera, hauen barruan talde ezberdinak aurkitu ditzakegu, izan ere, adin, genero...ezberdinetakoak daude. Horrez gain, gure zerbitzua hainbat arlo ezberdinetan erabili daiteke, hala nola, hezkuntzan. Ikastetxeek StreamVerse-k eskaintzin dituen dokumentalak alokatu ditzakete euren helburu didaktikoak betetzeko.